



Aurten 15garren aldiz egingo da 'Langile Eguna' eta gero eta jende gehiago biltzen da. Iaz 630 bildu ziren; aurten 750 bat.

Langile Ikastolak 'Langile Eguna' ospatuko du bihar, Tilosetan

■ Egun guztiko festa izango da, hasi 10:00etan eta arratsaldera bitarte ■ Langileko hiru zentroetako ikasle, guraso eta irakasleak biltzen ditu egunak ■ Bazkarirako txartelak oraindik hartu daitezke, ikastolan bertan.

LANGILE Ikastolak urteroko festa egingo du, bihar: *Langile Eguna*. Egun guztiko festa izaten da eta Langileko hiru zentroetako guraso, ikasle eta irakasleak elkartzen dira, Tilosetako bazkarian.

Festa antolatzeke arrazoi nagusiak bi dira: batetik, ikastola inguruan dabilen jende guztiak elkartzeko aukera izatea; eta bestetik, ikastola herriko jendearengana gehiago hurbiltzea. Aurten 15garren aldia da festa egiten dutela. Ekitaldian, denek izango dute parte.

Ibilaldia goizean
Lehenengo zita Tilosetan egingo dute, goizeko 10:00etan. Laubidietako ikasleek musika eta kantu emanaldia emango dute, Kantuz Abesbatzak gidatuta.

Belarriak gozatu ondoren, ibilaldia egingo dute, Tilosetatik Antziolara eta handik Floridako frontoira. 11:30etan Floridako frontoian izango dira hamaiketako, pelota partiduak, bertsoak eta abestiak (Santa Barbara zentruko ikasleek egingo dituzte ekitaldi horiek).

Bazkaria Tilosetan
Bazkaltzera Tilosetan bilduko dira, 14:00etan. Aurten 740 lagunetik gora izango dira (iaz 630 bat izan ziren). Nahiz eta bazkaria kanpotik ekarri, zerbitzari lanak gurasoek egiten dituzte (42 gurasok eman dute izena laguntzeko). Bazkal ondoren umeentzako ekintzak izango dira eta gero dantzaldia. Umeentzako ekintzetan, Langileko 16 urteko ikasleek lagunduko diete ume-zai dauden begiraleei.

Bazkari txartelak Langileko hiru zentruetan. □

EGITARAUA

- 10:00etan: Tilosetan**
Laubidietako ikasleen emanaldia.
Ibilaldia: Tiloseta-Antziola-Florida.
- 11:30etan: Floridan**
Hamaiketako. Edaria debalde.
Pelota partiduak.
Sta Barbarako ikasleen emanaldia.
- 14:00etan: Tilosetan**
Bazkaria.
- 15:00etan: Tilosetan**
TXAN magoa.
- 16:00etatik aurrera: Tilosetan**
Gaztelu puzgarri, tailer, ludoteka...
Dantzaldia IZOTZ taldearekin.

Saskibaloiturneoa umeentzat

EKAINAREN 8 eta 15ean neska-mutiko alebin eta infantilentzako saskibaloiturneoa jokatuko da Hernanin. KUTXA turneoa da eta aurreneko fasea eskualdekoa da. Buruntzaldekoak Hernanin jokatuko dute. Apuntatu nahi duten neska-mutikoak ikastolan bertan eman izena (soinketako irakasleari) edo telefono honetara deitu: 943-554513. □

Kale Hezitzaileek Uda Gazte programa aurkeztu dute

ONGINTZAKO Kale Hezitzaileek 12-16 urte bitarteko gazte-txoentzat udarako ekitaldi programa aurkeztu dute. Uztailaren 8tik 19ra bitartean izango da astelehenetik ostiralera, eta egun osoko ekintzak egingo dituzte. Aukeran: *piraguismoa, surfa, arko tiroa, eskalada, esgrima, buzeoa, kars-ak, golfa, bolei-plaia, body-board, pala, snorkel, perkusioa, piztina, mendia, vivac-a* eta abar. Aktibitate horiek denak daude aukeran, baina, taldeak osatu ezkeru aterako dira.

Apuntatzeko: 16:30etatik 17:30etara, Sandiusterri behea 1, 943-557790. Prezioa 65 euro eta maiaztzak 31 apuntatzeko azken eguna.

Torturaren aurkako mobilizazioak gaur

HERNANIKO Amnistiaren Aldeko Mugimenduak manifestazioa deitu du torturaren aurka. Prentsa ohar batean diotenez "azken aldiaren garbi ikusten da torturaren areagotzea". Zabaldutako datuen arabera "2001ean 95 euskal hiritarrek torturak salatu zituzte, poliziaen egoitzetatik pasa ostean. Aurten, dagoeneko 47 euskal hiritar dira torturak salatu dituztenak". Politikoei torturaren aurrean duten ardurara gogoratu eta herritar guztiei dei egiten diete herriz herriko mobilizazioetara. Gaur, 20:00etan plazan.

Kardaberaz 7
943 55 34 65
Ilargi
Moda eta
komplementuak

Allianz (li)
ASEGURUAK
Agustin Ezponda
AGENTZIA
Tel.: 943 557 326
656 735 109

AMAIA
RRANDEGIA
ARRATZAK
ITSASBIAK
FRESKO ETA
IZOZTUAK
Kardaberaz 34
Tel. 943 55 07 52
943 55 22 11
20120 HERNANI

S
A
N
S
O
N
A
T
E
G
I
Leku atsegina
Hernanitik gertu
SANSONATEGI JATETXEA
Martindegi Auzoa
Tel: 943 33 15 72 - 55 32 60

AMEGAR, C. B.
ETXE TRESNAK
SUKALDE ALTZARIAK
HORMA ARMARIOAK
Neurrira egiten ditugu.
Izpizua 27
ELEKTROGAILUAK -TB -
BIDEOAK - HI-FI - OPARIK
Eskaintza: FAGOR 1/2 Karga
ONTZIGARBIGAILUA 400 euro.
Txirrita kalea 15
Tel 943 551125 - Faxe 943 551603
HERNANI (Gipuzkoa)

BELAZARTE ETXEA
Erregetgia - Nekazal Etxea
Pagoaga 10 - Tel: 943 33 15 69
(Ugaldetxotik km 1era)

'Hernanik Bere Eskola' taldeak euskeraren egoera aztertu du Hernaniko hezkuntza zentruetan

■ Lanbide Heziketan erderaz ematen dena euskeraz emateko eskatu behar dela azpimarratu du taldeak ■ Etorकिनen egoera aztertzea dela diote.

HERNANIK Bere Eskola taldeak Hernaniko hezkuntza zentruetan euskera zein egoeratan dagoen aztertu du. Ikertu duena da euskerak zer presentzia duen bai hezkuntzan, bai ikastetxe bizitzan. Azterketa zentro guztietan egin du: ikastoletan, ikastetxeetan, Institutuan, Musika Eskolan, Haur Eskolan, CEPAn eta tailerretan.

Konklusioak

Hernanik Bere Eskola taldeak hiru mailatako konklusioak

atera ditu bere azterketatik: hezkuntzari buruzkoak, ikastetxeko bizitzari buruzkoak eta kanpoko harremani buruzkoak.

Hezkuntzari dagokionez, ondorio nagusia da: Lanbide Heziketan erderaz ematen diren ikasgaiak eta praktikak euskeraz emateko eskatu behar dela. Eta, horrekin batera, material guztia ere euskeratu egin behar dela. Horretaz gain, beste ondorio batzuk ere bota ditu taldeak: Euskera hizkuntza akademikoa bihurtu

da; ikasleen artean euskeraz gehiago egitea bultzatu behar da, eta etorkinen kontua aztertzea da, B eredura joaten dirrelako.

Zentruetako bizitzari dagokionez, irakasle ez direnek ere euskaldun izan behar dutela azpimarratu du. Horretarako euskalduntze planak proposatu dituzte, eta baita gurasoek euskeraz ikasteko ere.

Kanpo harremani dagokionez, dokumentazio guztia euskeraz edo bi hizkuntzetan izatea proposatzen du taldeak. □



Urumea eta Jakintzako ikasleak denak batean.

Jakintza ikastolakoak Hernanin. Jakintza eta Urumea ikastolak elkarlanean ari dira aurtengo kurtsoan. Umeak lanak, grabazioak, e-mailak etabar trukatzeko dituzte. Asteazkenean Jakintzakoak Hernanira etorri ziren herria pixka bat ezagutzera: ikasleak ezagutu, Santa Barbara ikusi... donostiarrak izan arren ez baitzuten Hernaniren berri haundirik.

JASOTA BEZALA

Jose Maria Setienek eskaini zigun hitzaldiaren ondoren, burutazioak izateko ordua iristen zaigu batzuri eta nerek plazaratzeko beharra sentitu dut. Bakoitzari berea zor zaionez ezin zaizkio zenbait gauza ukatu Setien obispo ohiari: Haste-ko, eliz gizon, intelektual edo politiko askori gertatzen zaie bezala, esan nahi duena plazaratzeko daukan gaitasuna ezin aipatu gabe utzi: Ideia ongi tajutuak, ongi antolatutako eskeintzen ditu, hitz jario txukunez. Jakinduriz jantzitakoak dugu Hernaniko seme hau. Hitzaldian, gehiengo eta gutxiengoaren arteko dinamika, askotan perbersoa, salatzearen balorea ere azpimarragarria ere bada.

Baina atzo entzundakoen ondoren galdera batzuk ere pasatzen zaizkit kopetaren barrukaldetik eta baita gorpuz osotik ere.

Esate baterako: Ze pisu moral dute zure hitzek, etika edo giza erlazioen ordenatu beharra aipatzen duzun elizaren erabaki guneetan egoteko aukerak gutxienez espiritualki afiliatuak daudenetatik %50ri sistematikoki ukatzen zaizkionean? Ulertu didazu?

Edo beste hau bururatzen zait: Pertsonaren barne pakea hain beharrezkoa iruditzen zaizularik, nola liteke mendez mende pertsonengan hainbeste barne infernu sortu izana erruaren eta pekatuaren ize-

nean? Izurri emozionalaz ba al dakizu zerbait? Ondorio sozialik izan al du sufrimendu emozionalak?

Eta biolentzia guztiak maila berean paratzea gogo hori... Ez da izango ba kontzientzia txarrak eragindako zerbait? (Badakizu, ezjakina ausarta da galderak egiterako orduan ere). Hitzegingo genuke luze, baita Euskal Herriak pairatu duen kolonizazio espiritual bortxatiaz ere, baina tira, hori beste baterako utziko dugu.

Ulergarriak izango zaizkizulakoan galderak eta aldi berean erantzun errezak, hurrengo arte eta izan ongi, ongiaren eta gaizkiaren gainetikako egoitzan.

Gorka Setien

Betiko lekuan, eguneroko ogirik onena banatzen!
ANTZIOLA 3
Tel. 943 55 17 91

OKINDEGIA
ANTZIOLA

Denda berri bat zabaldu dugu:
Ogia, pastelak, kafea, gozokiak, refrescoak,...

Ordenagailuak, jendeak erabiltzeko.

MONTEBIDEO, 3

ANTZIOLA
OKINDEGIA
GOZOTEGIA
KAFFEA

URREZKO EZTEIAK

Pilar Andres eta Txomin Arbiza ezkondu zireneko 50. urteurrena dela eta, bere alaba, seme eta bilobek zorionak eman nahi dizkiegu eta bihotz bihotzez, elkarrekin beste urte asko iraun ditzatela opa diegu.

HITZ BITAN



Ibai Arruarte eta Iñaki Prestamero.

✓ ARRAUNA

Ibai Arruarte eta Iñaki Prestamerok, medailak.

Hernaniko bi arraunlari gazteek marka polita jarri dute Europan. Ibai Arruarte eta Iñaki Prestamero kadeteak zenbait estropada jokatu dituzte *Banku Mobileko* '8+' modalitatean Euskadiko selekzioarekin eta Donostia-Arraun klubarekin. Donostia-Arraunekin urrezko domina irabazi zuten eta selekzioarekin zilarrezkoa, Akitaniako selekzioetik 4 segundutara sartuta. Bi mutikoak fuerte ari dira arraunean. Ekainean eta uztaillean txapelketa gogorrak dituzte: Gipuzkoa, Euskadi, Estatua eta Europakoa.

✓ PELOTA

Hernaniko pelotari gazteak bigarren Usurbilen.

Kike Lizasoain, Xabier Azaldegi eta Markel Lizeaga Pelota Eskolan dabilta. Usurbilgo txapelketa jokatu berri dute eta ez nolana: bigarren gelditu dira!



Kike, Xabier eta Markel Usurbilen.

✓ KROSSA -DONOSTIAKO MARATOI ERDIA

Urdangarin eta Pikabea Hernaniko onenak.

Igandean jokatu zen Donostiako Maratoi Erdia eta Hernaniko korrikalariak ere han izan ziren. Irabazleak, Cherem Simatwa keniarrak, 01:05:17 egin zuen, 21 kilometro pasatxotan. Ixiar Urdangarinek emakumeetan 5garren egin zuen 01:21:55 denbora eginda. Roxario Pikabeak, berriz, gizonezkoetan 48garren eta beteranoetan 5garren egin zuen, 01:17:57 eginda. Igande honetan, Egunkariako krossa dago Antiguon. Hernanin izena eman nahi duenak *Mitxel* kirol dendan du aukera.

✓ ESKOLARTEKO KIROLA

Olinpiadak, alebin eta benjaminentzat. Denboraldiko azken ekintza bihar da, goizeko 09:30etan, Marielutsen.

✓ BERTSO BAZKARIA

Bertso bazkaria, Ereñotzun. Bihar 14:00etan bertso bazkaria da Ereñotzuko Ur-Mia elkartearen. Bertsolariak: Aritz Zerain eta Jokin Sorozabal. Txartelak: Ereñotzuko Txilibita eta Irintzi tabernetan edo Ur-Mia elkartearen. □

IRRATIAK

(E.M. 99.2) 11:40 Iparraldeko Kronika. 12:00 Larunbeteo Ereñotzuko bertso bazkariari buruz. 12:15 Langile ikastolako egunari buruz Miren Lizeagarekin 12:30 Berriak antolatutako kale antzerkiaren inguruan.

HERIOTZAK

Juana Setien Kortajarena
Asteazkenean hil zen 91 urte zituela
Hileta elizkizunak, gaur ostirala, arratsaldeko ZAZPIETAN, Juan Bataiatzailea Parrokian

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

☎ Taxiak: 943 550093
☎ Udaltzaingoak: 943 333288
☎ DYA: 943 464622
☎ Autobusak: 943 556662
☎ Anbulatorioa: 943 006666
☎ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

☎ Egunez: Chucla
Kardaberaz 48
☎ 943 551793
☎ Gaez: Atxa-Orbea
Lasarte. Hipodromo 6
☎ 943 363549